

**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN
COMPETITIVA – ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZINETATEA SA (SPRI)**


2018KO KUDEAKETA-PLANA

Bilbo, 2018ko martxoaren 28a

AURKIBIDEA


Orrialdea

1.- SARRERA	3
2.- EGITEKOA ETA OINARRIZKO JARDUERA-ILDOAK.....	3
3.- EGITURA ETA ORGANIGRAMA	6
4.- KUDEAKETA-PLANA ALORREZ ALOR	13
4.1 ENPRESAK SUSTATZEKO ALORRA	13
4.1.1 Ekintzailtza eta garapen ekonomikoa	13
4.1.2. Ekimen estrategikoak.....	15
4.1.3. Invest in the Basque Country	16
4.1.4 Industria-antolamendua	18
4.1.4. Klusterren azterlanak eta koordinazioa	20
4.2 TEKNOLOGIAREN ETA BERRIKUNTZAREN ALORRA	21
4.2.1 Teknologia Saila	21
4.3.2 Berrikuntza Saila.....	25
4.3.3 Informazioaren Gizartearen Saila.....	27
4.3 BASQUE CYBERSECURITY CENTRE (BCSC)	30
4.4 BABES-ZERBITZUEN ALORRA.....	33
4.4.1 Informatika	33
4.4.2 Giza baliabideak.....	34
4.4.3 Kudeaketa eta etengabeko hobekuntza	34
4.4.4 Bezzeroaren arreta-zerbitzua	35
4.4.5 Zerbitzu orokorrak	36
4.4.6 Administrazioa eta finantzak	37
4.5 IDAZKARITZA NAGUSIA	38
4.6 KOMUNIKAZIOA	40
5.- 2018KO AURREKONTUA.....	41
6.- 2018KO KUDEAKETA-PLANEAN JASOTAKO URTEKO HELBURUEN KOADROA (Zuzendaritza Nagusiaren pizgarriak)	46



ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU PROGRAMA 2017-2020

HERRI-HELBURU: ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA SORTzea (LANGABEZIA-TASA % 10etik BEHERAKOA IZATEA & 220.000 GAZTEK LAN-AUKERA BAT EDUKITZEA)



SPRIko ARLOAK /DEPARTAMENTUAK		ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU PROGRAMA 2017-2020					
		ENPLEGUA			SUSPERTZE EKONOMIKOA		
		E2 EKINTZAILAZIA SUSTATZEA	E3 GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	E8 ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA	R2 BERRIKUNTZA	R3 NAZIOARTEKOTZEA	R4 INDUSTRIALIZAZIOA
ENPRESA GARAPEN	EKINTZAILAZIA	EKINTZAILA BARNEKINTZAILA BIND 4.0 LUZARO mailuak BASQUEFONDO	EKINTZAILA BARNEKINTZAILA BIND 4.0 LUZARO mailuak BASQUEFONDO	INNOBIDEAK-PERTSONAK			EKINTZAILA BARNEKINTZAILA BIND 4.0
	GARAPEN EKONOMIA	GAUZATU INDUSTRIA	GAUZATU INDUSTRIA			GAUZATU ATZERRIAN EZARTZEA	GAUZATU INDUSTRIA RENOVE MAQUINARIA 60-40 FINANTZAKETA
	INVEST IN BASQUE COUNTRY					PROYECTOS IED AFTERCARE	AIZ PROIEKTUAK AFTERCARE INDUSTRIA ANTOLAMENDUA
	EKIMEN ESTRATEGIKOAK				GIDARITZA-TALDEAK (RIS3) FABRIKAZIO AURRERATUA BDIH		FABRIKAZIO AURRERATUA BASQUE INDUTRY 4.0
	AZTERLAN ZERBITZU ETA KLUSTER KOORDINAZIOA				Zaintza lehiakorra Lankidetzako sareak eta proiektuak		KLUSTER KOORDINAZIOA
TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA	TEKNOLOGIA				EMAITEK + ELKARTEK HAZITEK EEN SAREA Kalifikazio txosten teknikoak, ZERGA-		
	BERRIKUNTZA				KUDEABIDE LEHIABIDE PERTSONAK PRESTAKUNTZA		
	INFORMAZIO GIZARTEA		ENPRESA DIGITALA BARNETEGI TEKNOLOGIKO MIKROENPRESA DIGITALA IT TXARTELA		BASQUE INDUTRY 4.0 INDUSTRIA DIGITALA INDUSTRIA ZIBERSEGURTASUNA ENPRESA DIGITALA BARNETEGI TEKNOLOGIKO PEBA EUSKADI MIKROENPRESA DIGITALA IT TXARTELA PC LAGUN METAPOSTA Banda Zabal Ultra lasterraren Euskal Behatokia		
ZIBERSEGURTASUNA					OOPP ZIBERSEGURTASUNA		
NAZIOARTEKOTZEA						FINANTZAKETA	

Halaber, honako jarduketa-esparru espezifiko hauek garatuko ditu:

- DDEIren plan estrategiko guztiak zabaltzea eta txertatzea;
- SPRIren jarduna eta haren enpresa-inpaktua eta ekintzen lurralde-oreka areagotzea, eta, hala, taldearen irudia indartzea eta gizartean hari buruzko pertzepzio positiboa handitzea.

2018rako proposatutako kudeaketa-eredua ere mistoa da.


- **Proiektuak.** Plangintza eta helburu jakinekin identifikatzen dituzte jarduerak.
 - **Eraitzen adierazleak.** Sozietatearen jardunaren kanpo-inpaktuak zehazten dira.
-

3. EGITURA ETA ORGANIGRAMA




SAILEKO LAN-TALDEAK - EQUIPOS DEPARTAMENTALES

j.p.: Zati bateko erretiroa-jubilación parcial




*Tecnologia eta Berrikuntzan parte hartze-Secretaria compartida con Área de Tecnología e Innovación
j.p.: Zate beteiko--ametrisa--jubilación parcial




*Enpresa Sustapen Arloarekin partekatuta-Secretaría compartida con Área de Promoción Empresarial j.p.: Zati beteko-emetiroa-jubilación parcial







(j.p.): Zati bateko enbetea-lubreakin gertatzen da



4.- KUDEAKETA-PLANA ALORREZ ALOR

4.1 ENPRESAK SUSTATZEKO ALORRA

ENPRESAK SUSTATZEKO ALORRAREN egiteko nagusia zera da: enplegu-aukera berriak sortzen dituzten enpresa-proiektuak sustatzea, euskal enpresen lehiakortasuna hobetzea eta, horrez gain, atzerriko inbertsio zuzeneko proiektuak eta aliantza estrategikoak lortzea, enpresa-sarea indartuko dutenak.

4.1.1 EKINTZAILETZA ETA GARAPEN EKONOMIKOA

EKINTZAILETZA ETA GARAPEN EKONOMIKOKO SAILAREN egiteko nagusia enpresa-proiektuak sustatzea da, hain zuzen ere, euskal enpresei enplegu-aukera berriak sortuko dizkieten proiektuak sortzea, nagusiki industria ardatz hartuta.

2018KO JARDUKETA PLANA

Jarduketak

EKINTZAILETZA.

- Ekintzailletza sustatzea, negozio- eta berrikuntza-zentroen (BIC) jardunarekin batera; horietan guztietan Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiekin elkarlanean jardungo da, ekintzailletza aurreratuaren sistema berrantolatzen eta koordinatzen.
- Hainbat jarduera gauzatzea teknologia-parkeen, teknologia-zentroen, unibertsitateen, negozio- eta berrikuntza-zentroen eta abarren arteko jarduna koordinatzeko, enpresak sortzeko erritmoa bizkortzeko eta enpresa-ekintzailletzako eta -garapeneko prozesu integrala bermatzeko, dibulgazio-jardunaldiak antolatuta; horrez gain, prestakuntza-lan handia egitea Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin, ekintzaileen prestakuntza integralerako programa bat sortuta.

Programak.

- **Ekintzaile** programak: enpresa berritzaileak eta/edo teknologikoak sortzeko proiektuei eragiten diete, dela partikularrek sustatuak, dela lehendik diren enpresek sortuak, baldin eta haien jarduera berriak jauzi kualitatiboa egiten badu haien jarduna dibertsifikatzeko bidean.
- **BIND 4.0:** *start-up* enpresak babesteko eginahalean jarraitzea, haien proiektua bizkortzen eta lehendabiziko bezero erreferentziala lortzen laguntzea.
- **BASQUEFONDO:** lankidetzak Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketarekin, enpresak hazteko proiektuetara finantzaketa bideratzeko tresna den aldetik, bereziki enpresa teknologiko eta global berrien arloan.

GARAPEN EKONOMIKOA

Programak.

- **Gauzatu Industria:** aurrerakin itzulgarriak, oinarri teknologikoa eta/edo berritzailea duten ETEak sortzea eta garatzea bultzatzeko; 2018ko deialdia kudeatzea, eta 2017koaren eta aurrekoen segimendua egitea.
- **Gauzatu Kanpo Ezarpenak:** euskal enpresak –ETEak– atzerrian ezartzeko prozesuen sorkuntza eta garapena sustatzea, haien kontsolidazioa babestuta eta atzerriko merkatuan ekoizpen-inbertsioa handituta, haien lehiakortasuna eta, ondorioz, etorkizuneko bideragarritasuna handitzeko formula gisa; 2018ko deialdia kudeatzea, eta 2017koaren eta aurrekoen segimendua egitea.
- **60-40 abalen lerroa:** laguntza eskaintzea Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren abalen programa kudeatzeko.
- **Renove Makineria:** ETE industrialei laguntzea makineria berria erosten, betiere lan-segurtasuneko eskakizunak beteta (Osalanek ziurtatu behar du); 2017ko eta 2016ko deialdietako ordainketak ixtea.

EMAITZEN ADIERAZLEAK

JARUKETA	PROGRAMA/ZERBITZUA	ADIERAZLEA	HELBURUA
Ekintzailtza-prozesuari babes integrala ematea	Enpresa- eta berrikuntza-zentroen jarduna	EKINTZAILE proiektua.	65
		Aurkeztuak	60
		EKINTZAILE proiektua.	55
		Onartuak	50
	BIND 4.0	BARNEKINTZAILE proiektua.	60
		Aurkeztuak	5
		BARNEKINTZAILE proiektua.	10
		Onartuak	2.100.000
		Sortutako enpresa- eta berrikuntza-zentroak	
		Luzaro maileguak	
		Basquefondo, onartutako proiektuak	
		Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	
			27
			250
Finantzaketa-mekanismoak eta tresnak indartzea, - eta hazkunde-proiektuak babesteko	GAUZATU programa INDUSTRIA	Enpresa lankideak	25
		Eskabideak jasotzea	
		Start-up enpresak aukeratzea	
	GAUZATU, segimendua	Aurkeztutako proiektuen kopurua	60
		Aldeko iritzia jasotako proiektuen kopurua	50
		Inbertsio-bolumena (milioi eurotan)	100
		Sortutako enplegua	500
		Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	28.000.000
			75
			10
			25
Nazioarteko funtzioaren hasiera eta/edo sendotzea babestea euskal enpresetan	60-40 FINANTZAKETA	Ordainketen proposamena	5
		Luzapenak eta gorabeherak	
		Amaierako txostena	
	GAUZATU, segimendua	Izapidetutako proiektuak	
	GAUZATU programa ATZERRIAN EZARTZEA	Aurkeztutako proiektuen kopurua	6
		Aldeko iritzia jasotako proiektuen kopurua	5
		Inbertsio-bolumena (milioi eurotan)	8
		Sortutako enplegua	20
		Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	5.000.000
			3
			2
			2
	GAUZATU, segimendua	Ordainketen proposamena	
		Luzapenak eta gorabeherak	
		Amaierako txostena	

4.1.2 EKIMEN ESTRATEGIKOAK

EKIMEN ESTRATEGIKOEN SAILAREN helburua zera da: enpresen garapena eta dibertsifikazioa babestea aukera-esparruetan, Euskadik enplegua, balio erantsia eta aberastasuna sortzeko enpresa-gaitasunak ageri dituen esparruetan eta gaitasun zientifiko eta teknologiko esanguratsuak dituen tokietan, RIS3 Euskadi Espezializazio Adimendunaren Estrategian definituta dagoen moduan; hau da, energiaren, fabrikazio aurreratuaren eta biozientzien/osasunaren arloetan.

2018KO JARDUKETA PLANA

Jarduketak

- Lankidetza publiko-pribatuaren espazioan parte hartzea, RIS3 Euskadi zabaltzeko (gidaritza-taldeak).
- DDElko erremintetara bideratzea hedapen-ekimenak, honako estrategia hauen esparruan: Fabrikazio Aurreratua – Basque Industry 4.0 eta Energiako Garapen Teknologiko eta Industrial – EnergiBasque. Inplikaturako agenteekin koordinatzea, hor barnean hartuta enpresak, klusterrak, ikerketa-erakundeak, berrikuntza-sistemak eta administrazio publikoak.
- Eragile publikoei eta pribatuei aholkularitza eta orientabidea ematea, arlo estrategikoekin lotutako auziei buruz.
- Barne- eta kanpo-zabalkundea, estrategiekin lotutako jarduerari buruz.
- Laguntza-erreminten koordinazioa, haien aplikazioaren efikazia maximizatzeko enpresetan eta estrategiokin lotutako eragileetan.
- Eskualdeen arteko lankidetza sustatzea, Europako eskualdeen Vanguard Initiative sarean eta tankerako ekimenetan.
- Estrategien aurrerabidearen segimendua egitea eta hobekuntza estrategikoak proposatzea, estrategien garapena eta etengabeko hobekuntza babesteko.
- Basque Digital Innovation Hub (BDIH) gunearen kudeaketa eta segimendua.

EMAITZEN ADIERAZLEAK

JARDUKETA	PROGRAMA/ZERBITZUA	ADIERAZLEA	HELBURUA
Koordinazioa	Fabrikazio-zentro aurreratuak, klusterrak, Basque Ecodesign Center, BDIH	Estrategiak abiarazteko ekimenek behar duten bilera-kopurua	40
Aholkularitza	RIS3 segimendua	Txostenen kopurua	10
Hedapena	Hannover Messe	Nazioarteko ekitaldiak	1
Laguntza-tresnak		RIS3 ikerketa estrategikoko proiektuen ehunekoa, HAZITEK deialdiko guztien artean	% 85
Eskualdez gaindiko lankidetza	VANGUARD INITIATIVE, S3P plataforma tematikoak, eskualdeen arteko proiektuak; DIH lantaldeak; REDIDI	Partaidetza nazioarteko ekimenetan	10
Segimendua	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren ekarpena fabrikazio aurreratuan – Basque Industry 4.0 eta Energian – Energibasque	Estrategiaren berrikuspen-txostenak	2

4.1.3 INVEST IN THE BASQUE COUNTRY

INVEST IN THE BASQUE COUNTRY SAILAREN helburua Euskadin atzerriko inbertsioa indartzea eta erraztea da, hazkunde- eta lehiakortasun-estrategia gisa; horretarako, atzerriko inbertsio zuzeneko proiektu berriak erakarriko dira intereseko alorretarako eta lehentasunezko sektoreetarako, eta, horrez gain, gaur egun Euskadik duen atzerriko inbertsioa garatuko eta sendotuko da.

Hona hemen sailaren helburu estrategikoak:

- Euskadik atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko duen gaitasuna handitzea eta sendotzea;
- kalitateko atzerriko inbertsio zuzena erakartzea, aberastasuna eta enplegua sortuko dituen;
- jakintzan gero eta intentsiboagoak diren atzerriko inbertsio zuzeneko proiektuak erakartzea;
- erabakiguneak Euskadin egon daitezen ahalegintzea, edota lehendik direnei Euskadin bertan eustea;
- ekarpen esanguratsua egitea atzerriko inbertsio zuzena Euskadira erakartzeko.

2018KO JARDUKETA PLANA

Jarduketak

- **ATZERRIKO INBERTSIO ZUZENeko PROIEKTUAK ERAKARTZEA ETA HAIETAN LAGUNTZEA**, atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko laguntza integratuko sistema bat artikulatuta eta abiarazita (ICEX; SPRI BTI bulegoak; eragile biderkatzaileak; SPRI Taldea; klusterrak; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea; Euskadiko foru-aldundiak eta hiriburuak).
 - Eskaintzak eta proposamenak prestatzea proiektu bakoitzera egokituta (pizgarriak, lurzorua, bulegoak, kolaboratzaileak, enpresak, teknologia, fiskalitatea), aurretik aipatu ditugun eragileekin lankidetzan.
 - Laguntza ezarpen-proiektuetan:
 - agenda prestatzea, proiektuari balioa emango dioten eragile eta enpresa kolaboratzaileekin.
 - Proiektua abiaraztea lankidetzan publiko-pribatuan, aholkulari espezializatuarekin eta eragile instituzionalarekin, ezarpenaren hainbat alderditarako (enpresa sortzea, bisatuak, baimenak, laguntzak, behin betiko kokapena eta abar). Horretarako, eragileen plan bat prestatuko da, lurralde bakoitzean proiektuak mamitzeko zerbitzua ematen dutenekin.
- **EKINTZA PROAKTIBOAK**. Lead Generation: Estrategia proaktiboak diseinatzea eta bultzatzea
 - lehentasunezko sektoreetan (Ris3).
 - Nanoteknologia. IMAGINE NANO. Imagine Nano 2018 azokan parte hartzea, EENk (Enterprise Europe Network) Bilbon antolatutako B2B topaketetan.
 - Basque Industry 4.0.
 - MISION INVERSA AUSTRIA 4.0 (Bilbo).
 - HANOVER MESSE AZOKA (Alemania).
 - MAKINA-ERREMINTAREN BIENALA, 2018 (Bilbo).
 - Automobilgintza (Erresuma Batua). Inbertsioak erakartzeko eginahala, Acicæ automobilgintzako klusterrarekin eta Zumaiako GKN lantegiarekin lankidetzan.
 - Aeronautika. Prospektiba Hegan klusterrarekin, batez ere Frantzia eta Erresuma Batuan.
 - Biozientziak. Prospektibak klusterrarekin eta beste hainbat eragilearekin, hala nola Amerikako Estatu Batuetan (Bio azoka, Boston) edota Alemanian (Medical Devices, E-medica).
 - Lehentasuna duten herrialdeak: Erresuma Batua (Brexit), Alemania, Ameriketako Estatu Batuak eta Japonia.

- **MERKATUEN ADIMENA.** Nazioarteko aukera-nitxoak identifikatzea atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko (*Financial Times*), atzerriko inbertsio zuzen ezarriaren aukerak identifikatzea (BD Sabi), merkatuaren eta joeren azterlanak.
- **AFTERCARE,** atzerriko kapitala duten Euskadiko enpresen jarduna zabaltzeko eta haien balioa handitzeko. Jarduketa-plana Aftercare Euskadi datu-base eguneratuarekin (geuk egina), bisita antolatuak eta Aftercare topaketa.
- **KOMUNIKAZIO-EUSKARRIAK;** tresna eta material horien bidez, berehalako erantzuna emango zaie Euskadin atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko prozesuetako laguntza-premiei: Big Little katalogoa, neurritik prestaturako informazio sektoriala, bideoa, webgune eguneratua eta egoki irizitako bestelako euskarriak.
- Inbertsioak Erakartzeko hurrengo Plan Estrategikoa egikaritzea (2018/2021 aldirako).

PROIEKTUAK

DEFINIZIOA		AZKEN DATA
1.	Atzerriko inbertsio zuzeneko proiektuak erakartzea eta laguntzea (eskaintzak eta laguntza). - Agente biderkatzaileen plana	2018ko uztaila
2.	Proaktibitatea - Automobilgintza, aeronautika, Basque Industry 4.0, bioosasuna. - Herrialdeak: Erresuma Batua, Alemania, AEB, Japonia.	2018ko abendua
3.	Aftercare zerbitzuak sustatzea - Aftercare Euskadi datu-base eguneratua - Bisiten plangintza. - Aftercare topaketa.	2018ko apirila 2018ko otsaila 2018ko urria
4.	Komunikazio-euskarri berriak - BigLittle eta bideo eguneratuak - Webgune eguneratua - Bestelako euskarriak	2018ko otsaila 2018ko abendua
5.	Inbertsioak Erakartzeko hurrengo Plan Estrategikoa egikaritzea (2018/2021 aldirako)	2018ko ekaina

EMAITZEN ADIERAZLEAK

JARDUKETA	PROGRAMA/ZERBITZUA	ADIERAZLEA	HELBURUA
Atzerriko inbertsio zuzeneko proiektuak kudeatzea		Kudeatutako proiektuen kopurua	80 (55 berriak)
Inbertsio-proiektu berriak zehaztea		Amaitutako proiektuen kopurua Inbertsio-bolumena (milioi eurotan) Sortutako enplegua	15 90 300 berriak + 350 lehengoak
Lehendik den inbertsioa kontsolidatzea		Topaketa-kopurua, lehendik diren atzerriko enpresekin	30
Kaptazio-eragileen sarea zabaltzea		Kontaktatutako eragile berriak	50

4.1.4 INDUSTRIA-ANTOLAMENDUA

INDUSTRIA-ANTOLAMENDUAREN ALORRAK honako xede hau dauka: enpresei krisialditik irteteko bidean eskaintako laguntza sendotzea, dela bideragarri iritzitako enpresak indartzeko, dela desegin beharrekoen modu ordenatuan desegiten laguntzeko. Hartara, laguntza eskaini nahi zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria Garapeneko Zuzendaritzari, eskura ipiniz erreminta-sorta koherente bat aukera ematen duena, enpresa-problematika bakoitzari egokitutako soluzioekin heltzeko.

Era berean, Industria Garapeneko Zuzendaritzaren helduleku izango da, berrindustrializazio-premia bereziak dituzten Euskadiko inguruen industria-antolamenduan eta -sustapenean, betiere beste erakunde batzuekin lankidetzan eta ekonomia suspertzeko eta lurralde-kohesioari eusteko xedez.

Nabarmentzekoa da alor honek Invest in the Basque Countryrekin duen lotura; izan ere, finantza-babesa eskaintzen dio azken alor horri proiektuen balioespen kualitatiboa egiteko garaian, eta, gainera, gero eta ohikoagoa da atzerri-inbertsioaren presentzia tankera horretako kasuistikan. Horrexegatik dago, hain zuzen, Industria Antolamenduaren alorra Invest in the Basque Country alorrean atxikita.

2018KO JARDUKETA PLANA

Jarduketak

- Zailtasun koiunturalak dituzten enpresei laguntza eskaintzea; proiektuaren bideragarritasunaren arabera, izan liteke modu antolatuan desegiteko, edota etorkizunera begira sendotu eta berrabiarazteko. Hori dela eta, finantza-tresnen hainbat pakete prestatzen dira, kasuistika bakoitzera egokituta, eta ondoren segimendua egiten zaie.
 - Finantza-babes posibleak topatzea, hainbat eratako iturrietatik: erakundeak, sektoreko enpresak (dela EAEkoak, dela atzerrikoak), inbertsio-funtsak eta abar.
 - Zuzendaritzaren trebakuntza indartzen laguntzea, bereziki enpresa txikietan.
 - Aurreko ekitaldietan partaidetzako enpresen alde hasitako apustuarekin jarraitzea.
- Industriaren sustapena eta antolamendua bultzatzen laguntzea, berrindustrializatzeko premia berezia duten Euskal Autonomia Erkidegoko eremuetan, ekoizpen-inbertsioak egiten dituzten enpresak sustatzeko –eta, ondorioz, enplegua sortzen dutenak–, eta, hala, eremu horietan lehiakortasuna areagotzeko.
 - Diskriminazio positiboko programak ezartzea, Europako araudiarekin bat.
 - Babes integrala eskaintzea, bai sustatzaile berriei, bai inbertsio estrategiko eta lehentasunezkoak egiten dituzten enpresei, eremu haietan enplegua sortzen duten aldetik.
 - Proiektu bakoitzaren segimendu indibiduala.
- Laguntza eskaintzea Invest in the Basque Country alorreko zorroko proiektuen finantza-analisan:
 - proiektuaren bideragarritasun kuantitatiboaren balioespena.
 - Segimendu intentsiboa egitea atzerriko sustatzaileei, hain zuzen, zailtasun koiunturalak ageri dituzten euskal enpresekin interes potentziala dutenei.
 - Proiektu bakoitzaren kasuistikara egokitutako finantzaketa topatzea, iturri bat baino gehiago konbinatuta.

EMAITZEN ADIERAZLEAK

JARDUKETA	PROGRAMA/ZERBITZUA	ADIERAZLEA	HELBURUA
EAEn egoera zailean dauden ETE industrialen enplegua eta jarduera sendotzea finantzaketaren bidez, epe ertain eta luzerako bideragarritasuna berriz ezartzeko.	Bideratu Berria	Babestutako enpresen kopurua Enpresek emandako bitarteko propioak (milioi eurotan) Kontsolidatutako lanpostuak	3 1,5 125
Inbertsioak sustatzea egoera ahulean dauden inguruetako enpresetan, ekonomia suspertzeko eta lurralde-kohesioa sustatzeko		Babestutako enpresen kopurua Induzitutako inbertsioa (milioi eurotan) Enpleguak	10 50 150

4.1.5 KLUSTERREN AZTERLANAK ETA KOORDINAZIOA

KLUSTERREN AZTERLANEN ETA KOORDINAZIOAREN ALORRAK Eusko Jaurlaritzaren politiken diseinua eta hedapena koordinatzen ditu, klusterrei dagokienez. Hala, honako hauek koordinatzen ditu: SPRIren alorretarako lehiakortasunaren zaintza-zerbitzua, enpresen eta lehiakortasunaren informazioa, analisiak eta azterlanak. SPRI ordezkatzan du Estatuko zein nazioarteko foro eta sareetan, eta haietatik sortutako kooperazio-proiektuetan esku hartzen du.

2018ko JARDUKETA PLANA

- **Klusterrak**
 - Klusterrei laguntzeko politika ezartzea eta hobetzea, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.
 - Kluster-loturen taldea koordinatzea, laguntzen programa kudeatzeko: eskabideak, ebaluazioa, deskargua, komisio exekutiboa...
 - Klusterren arteko eta nazioarteko lankidetzaren bideratzea, bai eta klusterren elkarrekin elkarganatze- eta sendotze-prozesuak ere.
 - Klusterrei eta elkarte dinamizatzaileei aplikatutako ebaluazio konparatiboa egitea.
 - Industri Abagunearen Behatokia antolatzea.
 - Sareen ekimenak kanalizatzea eta interes-proiektuak dinamizatzea klusterrentzat, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.
 - Lan-erremintak eta -metodologiak hobetzea ORKESTRArekin lankidetzan (Basque Cluster Day, lantaldeak, jardunbide egokiak eta abar).
 - Klusterren arteko lankidetzaren taldea dinamizatzea, klusterren zaintza lehiakorretarako.
 - EAEko klusterren mapaketa eguneratzea.
- **Zaintza lehiakorra**
 - Zaintza lehiakorretarako zerbitzua (RADAR proiektua), SPRIren alorren zerbitzura.
 - SPRIren azterlanen liburutegiari eustea.
 - Klusterren arteko lankidetzaren taldea dinamizatzea, klusterren zaintza lehiakorretarako.
- **Lankidetzako sareak eta proiektuak**
 - Modu aktiboan parte hartzea agentzien sareetan (ADR foroak, EURADA), klusterretan (TCI) eta zaintza lehiakorrean (ALERTA).
 - Europako CLUSTER S3 proiektua gauzatzea, INTTERREG ekimenaren barruko lider gisa.

EMAITZEN ADIERAZLEAK

JARDUKETA	PROGRAMA/ZERBITZUA	ADIERAZLEA	HELBURUA
KLUSTERRAK	Kluster programaren kudeaketa	Ebaluatutako proposamenen kopurua	36
KLUSTERRAK	Koordinazioko eta batzorde exekutiboaren bilerak	Bileren kopurua	6
KLUSTERRAK	Bilerak zuzendaritza-batzordeekin	Bileren kopurua	80
KLUSTERRAK	OCI, Cluster Day, lantaldeak	Jardunaldien kopurua	6
KLUSTERRAK	OCI, Cluster Day, lantaldeak	Parte-hartzaileen kopurua	180
AZTERLANAK	SPRIren zaintza lehiakorra	Web-erabiltzaileen kopurua	50
AZTERLANAK	SPRIren zaintza lehiakorra	Argitaratutako artikuluen kopurua	70
AZTERLANAK	Klusterren arteko lankidetzaren taldea	Zaintza-bileren kopurua	6
SAREAK ETA LANKIDETZA	Sareetan eta proiektuetan parte hartzea	Bileren kopurua	10
SAREAK ETA LANKIDETZA	Presentzia sareetan	Sareen kopurua	3
SAREAK ETA LANKIDETZA	Proiektuetan parte hartzea	Bizirik diren proiektuen kopurua	2

4.2 TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN ALORRA

TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN ALORRAREN helburua zera da: Euskadiko ETE-en eraldaketa-prozesua bideratzea eta haietan kultura-aldaketa posible egitea. Horretarako, hauek sustatuko eta babestuko ditu: egungo oinarri ekonomikoaren lehiakortasuna hobetzea, eta sektore berrietarantz dibertsifikatzea; zuzendaritzaren garapena; eta berrikuntzaren eta I+Garen kultura sistematikoa erakundeak eraldatzeko prozesu osoan, elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (EIKT) baliatuta aldaketarako akuilu gisa.

ETEak erronka bereizgarri gisa hartu behar du berrikuntza. Hain zuzen ere, berrikuntzak enpresa-mota guztietara bideratuta egon behar du, ETEaren kudeaketa-esparru guztietan aplikatu behar da, eta haren inpaktua emaitza ekonomikoetan eta sozialetan nabaritu behar da.

4.2.1 TEKNOLOGIA SAILA

TEKNOLOGIA SAILAREN jarduera-esparruaren oinarria da herrialde berritzaile bat lortzea, maila zientifikoan eta teknologikoan aurreratua.

Teknologia Sailaren jarduna hainbat lehentasun estrategikori erantzuteko dago diseinatuta.

- **Enpresetako ikerketa eta garapena.** Egungo enpresa-oinarriaren lehiakortasuna hobetzera eta oinarri teknologikoko enpresa berriak abiaraztera bideratutako I+G+Bko prozesuak babestea. HAZITEK programak eta zerga-ondoreetarako kalifikazioko txosten teknikoak.
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea.** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileek gehienbat elkarlanean garatzen duten funtsezko ikerketa eta industria-ikerketa babestea, garatzen eta hedatzen laguntzeko Zientzia eta Teknologiko Estrategia berria, ZTBP 2020 planean ezarritakoa, bai eta zehaztutako helburuak lortzeko eta Berrikuntzako Euskal Sistema sendotzeko ere. EMAITEK + ELKARTEK programak.
- **Zientzia eta teknologia hedatzea,** lehiatzeko abantaila gisa, eta teknologiaren transferentzia sustatzea euskal berrikuntza-sistemako protagonisten artean. EEN (Enterprise Europe Network) sarea proiektua.

2018KO JARDUKETA PLANA

ENPRESETAKO IKERKETA ETA GARAPENA.

- **HAZITEK programa.**
 - ✓ **Lehiarako I+Ga.**

Enpresen lehiakortasuna hobetzeko I+Gko proiektuak babestea, produktu berriak garatzera eta oinarri zientifiko teknologikoko enpresak martxan ipintzera bideratutakoak.
 - ✓ **I+G estrategikoa.**

Industria-ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu estrategikoak egiten laguntzea, Euskadira traxio-efektua izango dutenak. Proiektu horien ezaugarri nagusiak hauek dira: enpresen I+Gko apustuaren dimentsioa, lehentasunezko alorretan espezializatuta egotea, dibertsifikazio sektorial eta teknologikora bideratuak izatea, eta haien inpaktuaren nazioarteko dimentsioa.
- **Kalifikazioko txosten teknikoak, zerga-ondoreetarako.**

Txosten lotesleak egiteko zerbitzua, enpresen jarduna I+G alorreko txosten kalifikatzeko, sozietateen gaineko zergan kenkariak lortzera bideratua, foru-aldundiekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenen babesean.

Foru-aldundiek eskatutako analisi-zerbitzua, enpresei I+Gko jarduna justifikatzeko eskatzen zaien dokumentazioa berrikusteko eta kalifikatzera bideratua.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO EUSKAL SAREA (ZTBES).

- **ELKARTEK programa.**

- ✓ **Oinarrizko ikerketa kolaboratiboa.**

Oinarrizko ikerketa-proiektuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileekin lankidetzan eginak, zenbait arlotan ezagutza handitze aldera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planaren eta Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren (RIS3) lehentasun-esparruen parte diren honako arlo hauetan:

- a) energia;
- b) manufaktura aurreratua;
- c) biozientziak-osasuna.

- ✓ **Industria-potentzial handiko ikerketa.**

Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen I+Gko enpresa-unitateek gidatuko dituzte proiektuok, merkatua erakartzeko eta hara iristeko ahalmen handia dutenek, alegia. Eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2020 Planaren espezializazio-esparruekin bat egingo dute.

I+Gko enpresa-unitateek garatu beharko dituzte halako proiektuak, ZTBES Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko beste eragile batzuekin elkarlanean, eta I+G-ko enpresa-unitate batek hartu beharko du proiektuaren gidaritzak.

- ✓ **Ekintza osagarriak.**

Eskaintza-eskari bitartekaritza-organismoek eta hedapen-organismoek eskusiboki garatutako bitartekaritza-proiektuak, eskaintzaren eta eskari teknologiararen artekoak. Honako hauek, adibidez:

- Prospekzio-lanak eta eskari goiztiarrari buruzko azterlanak egitea, bai eta funtsezko ikerketaren edo ikerketa industrialaren arloetako proiektuei loturiko zaintza teknologikoaari buruzko azterlanak ere;
- funtsezko ikerketaren edo industria-ikerketaren arloko I+G+Bko proiektuak prestatzerakoan lankidetzak teknologikoa eta aholkularitza aldeztara bideratutako jarduerak;
- I+G+Ba kudeatzeko jarduerak, funtsezko ikerketaren edo industria-ikerketaren arloko proiektuei loturiko ezagutzaren transferentziarako eta baloraziorako;
- I+G+Ba nazioartekotzeko jardueretan parte-hartzea sustatzea, funtsezko ikerketaren edo industria-ikerketaren arloko proiektuei loturik.

- **EMAITEK + programa.**

Laguntza eskaintzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko teknologia-zentroei eta ikerketa kooperatiboko zentroei (jarduera ez-ekonomikoa), haien jarduera merkatura bideratzeko, espezializazioa eta bikaintasuna lortzeko eta harreman-eredua lantzeko.

Teknologia-zentroek eta ikerketa korporatiboko zentroek proposatutako ekintzak, haien aginte-koadroen emaitzak hobetzeko eta 2020an egiaztapen-eskakizun espezifikoak betetzeko.

HEDAPENA ETA AHOLKULARITZA.

- **EEN sarea** proiektua (Enterprise Europe Network).

SPRI da lider ENTERPRISE EUROPE NETWORK Sarearen Euskal Partzuergoan (Basque EEN), zeinaren finantzazioan parte hartzen baitu Europar Batasunak. Euskal enpresei eta bereziki ETE-ei laguntza-zerbitzuak eskaintzen dizkie, teknologiararen transferentzia-prozesuetan eta I+G+Ba finantzatzeko Europako programak eskuratzen. Halaber, KAM (Key Account Management) zerbitzuak eskaintzen dizkie ETE lanabes berriaren onuradunei, baita berrikuntza kudeatzeko zerbitzuak ere ETE-ei.

- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileak ziurtatzeko** proiektua.

SPRIk lankidetzan dihardu sareko eragileen segimendua egiten duen lantaldearekin. Eragile berrien eskabideak aztertzen ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean bat egiteko, bai eta txostenak prestatu ere, eragileek planteatzen dituzten errekursoak ebazteko.

- **I+G+Ba babesteko programen inpaktua** aztertzekeo proiektua.

SPRIk proiektua garatzen du, inpaktua aztertzekeo metodoa definituta eta kudeatzen dituen laguntza-programa guztietan txertatuta. Sistema horren oinarria zera da, kudeatutako laguntza-programa guztietan onartutako proiektuen segimendua egitea. Proiektuak egon litezke ahalegin-fasean (onartuta), emaitzen fasean (amaituta) edota inpaktu ekonomikoaren fasean (amaitu eta bi urtera); horrenbestez, ezarritako sistemari eskatzen dio hainbat urtetako proiektuen deialdiak kudeatzea.

- Metodologiak diseinatzeko, garatzeko eta ezartzeko proiektuak, teknologia-zentroen eta ikerkuntza kooperatiboko zentroen **diru-sarrera guztien** zenbatekoa **homologatzeko**, haien kalkulua objektibo egiteko, ezinbestekoa baita hori EMAITEK funtsen kudeaketa eta gardentasuna hobetzeko.

JARDUKETA	PROGRAMA/ZERBITZUA	ADIERAZLEA	HELBURUA
ENPRESA-IKERKETA ETA - GARAPENA	HAZITEK / LEHIAKOAK	Aurkeztutako eta ebaluatutako programak	1.000
		Aurkeztutako enpresen kopurua	950
		Onartutako proiektuak	710
		Babestutako enpresen kopurua	675
		Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	41.000.000
	HAZITEK / ESTRATEGIKOAK	Aurkeztutako eta ebaluatutako programak	40
		Aurkeztutako enpresen kopurua	240
		Onartutako proiektuak	30
		Babestutako enpresen kopurua	200
		Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	42.000.000
	Kalifikazioko txosten teknikoak, ZERGA-ONDOREETARAKO	Laguntza-programekin lotutako txostenak egitea	2.100
		I+G+B ebaluazioa egiteko aurkeztutako eta ebaluatutako proiektuak	325
		Aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak	225
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea (ZTBES)	ELKARTEK / oinarrizko ikerketa kolaboratiboa	Aurkeztutako eta ebaluatutako programak	50
		Aurkeztutako ZTBES eragileen kopurua	60
		Onartutako proiektuak	25
		Babestutako ZTBES eragileen kopurua	55
		Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	30.000.000
	ELKARTEK / industria-potentzial handiko ikerketa	Aurkeztutako eta ebaluatutako programak	50
		Aurkeztutako ZTBES eragileen kopurua	65
		Onartutako proiektuak	40
		Babestutako ZTBES eragileen kopurua	60
		Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	Aurreko atalean bilduta
	ZTBES eragileak egiaztatzea	Egiaztapen-txostenen kopurua	10
	EMAITEK+	Aurkeztutako, ebaluatutako eta onartutako ekintza-planak	14
		Ebaluatutako ekintzen kopurua	50
		Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	56.000.000
HEDAPENA ETA AHOLKULARITZA	EEN sarea	Argitaratutako eta bidalitako buletinen kopurua	11
		Jardunaldiak, mintegiak eta lan-tailerrak (ekitaldiak / parte-hartzaileak)	10 / 750
		Aholkatutako enpresen kopurua	250

4.2.2 BERRIKUNTZA SAILA

BERRIKUNTZA SAILAREN egitekoa zera da, euskal enpresa-sarearen lehiakortasun-hobekuntzaren garapen orokorrean laguntzea; horretarako, hainbat ekimen bideratuko dira, berrikuntzaren aldeko kulturarentz igarotzeko, ingurune berritzailea indartuz, zuzendaritza-gaitasunak eta -trebetasunak landuz eta dimentsio lehiakor egokidun erakunde berritzaileak sustatuz. Hona hemen sailaren helburu estrategikoak:

- Lehiakortasunaren eta berrikuntzaren balioak zabaltzen jardutea, baita zuzendaritza-koadroen gaitasunak eta trebetasunak egokitzen ere;
- kudeaketa-ereduak eta -erremintak garatzea eta aplikatzea, erakundeen gaikuntza, berrikuntza, dimentsioa eta lehiakortasuna hobetzeko;
- enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzeko ekintzak sustatzea, sareko jardueren bidez.

2018KO JARDUKETA PLANA

Berrikuntza Sailak garatutako jarduerak erantzuna ematen die honako hauek lortzera bideratutako jarduera-ardatzei: manufaktura aurreratuko estrategia transbersal bat abian jartzea, pertsonen enpresan duten partaidetza sustatzea eta berrikuntza ez-teknologikorako estrategia berrabiatzea.

Laguntza hori emateko, berrikuntza sustatuko da euskal enpresetan (batik bat, ETE-etan), egungo egoerak ekarri dituen erronkei aurre egiteko, bai eta oinarri sendoak ezartzeko ere, etorkizunean haien garapen lehiakorra bermatzeko, ondoren zehaztuko ditugun sentsibilizazio-, prestakuntza- eta gaikuntza-jarduera hauen bidez.

- ✓ **Zuzendaritza-taldeak sentsibilizatzea eta gaitzea kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasuneko oinarritzko auzietan. Horretarako, hainbat programa aurreikusi dira.**
 - **Innobideak Prestakuntza.**

Zuzendaritza-taldeak sentsibilizatzeko eta gaitzeko jarduerak, kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasuneko oinarritzko auzietan.
- ✓ **Hedapen- eta errekonozimendu-ekintzak.**
 - **Basque Industry 4.0 2018**, Euskadiko berrikuntzari, teknologiari eta jakintzari buruzko erreferentziako topagunea, Industria 4.0 esparrura aplikatutako joera teknologikoak aurkeztera eta zabaltzera bideratua.
 - **Marcelo Gangoiti saria**, Bizkaiko Ezkerraldeko eta Meatzaldeko enpresen artean urtero banatzen den sari entzutetsua.
 - **Gazte Role Model**, balio profesional eta solidarioak errekonozitzeko urtero ematen den saria.
- ✓ **Enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzea, berrikuntzaren eta kudeaketa aurreratuaren bidez, INNOBIDEAK programa baliatuta eta honako lerro hauei jarraikiz.**
 - **Innobideak Kudeabide.** Euskal enpresen lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzea, laguntza emanez kudeaketa aurreratuko printzipio, tresna eta metodologiaren aplikazio eta ezarpenari.
 - **Innobideak Lehiabide.** Produktuak, prozesua, merkatua eta antolaketa berritzeko proiektuak egitea (banaka, lankidetzan edota trakzio-enpresek gidatuta, eta balio-katean bildutako enpresa hornitzaileekin batera gauzatuta).
 - **Innobideak Pertsonak.** Erakundeko pertsonen kudeaketan, emaitzetan eta jabetzan parte-hartze handiagoa izan dezaten lortzea, eta/edo gardentasun, konfiantza, ekitate, egonkortasun eta barne-lankidetzaren handiagoko ereduaren jarraitzea, zertarako eta kide guztiek gero eta gehiago parteka dezaten enpresa-proiektua.

JARDUKETA	PROGRAMA/ZERBITZUA	ADIERAZLEA	HELBURUA
Innobideak estrategia. Enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzea berrikuntzaren bidez.	<u>INNOBIDEAK-PRESTAKUNTZA</u> Kudeaketa aurreratuari buruzko oinarrizko prestakuntza	Partaideen kopurua	1.000
		Ekitaldia egitea	1
	BASQUE INDUSTRY 4.0. 2018	Ekitaldia egitea	1
	MARCELO GANGOITI SARIA	Ekitaldia egitea	1
	GAZTE ROLE MODEL		
	<u>INNOBIDEAK PROGRAMA</u>	Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa	2.500.000
	INNOBIDEAK – KUDEABIDE		140
	• Kudeaketa aurreratuko kanpo-kontrasteak erakundeetan (1. fasea)	Egindako kontrasteen kopurua	
	• Kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasuneko proiektu pilotuak (2A fasea)	2A proiektuetarako eskabideen kopurua	25
	• Kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasuneko sendotze-proiektuak (2B fasea)		150
		Aurkeztutako proiektuak > 50 lanpostu < 50 lanpostu	30 120 100
		Onartutako proiektuak > 50 lanpostu < 50 lanpostu	20 80
	INNOBIDEAK – LEHIABIDE	Aurkeztutako proiektuak	65
	Berrikuntza bizkortzeko proiektuak	Onartutako proiektuak	56
	INNOBIDEAK – PERTSONAK	Aurkeztutako proiektuak	28
	Langileek parte hartzeko programak	Onartutako proiektuak	20

4.2.3 INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN SAILA

INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN SAILAK honako helburu hau dauka: enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzea, oinarritzko akuilu gisa elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak (EIKT) baliatuta, haien berrikuntza-gaitasunaren ondorioz, efektu biderkatzailea lortzen baitu produktibitatea handitzeko bidean.

Egun indarrean dagoen plana Euskadi 2020 Agenda Digitala da (AD@2020), informazioaren gizartea garatzeko plan estrategikoa; bertan, elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak aplikatzea lehenesten da, Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategian zehazten diren sektoreetan, konfiantza izanik teknologia horiek aplikatzeak enpresen garapena eta lehiakortasuna ekarriko duela.

AD@2020k lau jarduera-ardatz aurreikusten ditu:

1. enpresak merkatu digital globalizatuan;
2. gizarte lehiakor eta aktiboa;
3. administrazioa ingurune digitalean;
4. lurralde adimenduna eta kohesionatua.

«Enpresak merkatu digital globalizatuan» ardatzaren helburua zera da, aurrera egitea industria adimenduna garatzeko bidean. Honako erronka hauek aurreikusten ditu:

- 1. erronka. Sektore industrial estrategikoen eskura ipintzea elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologia aurreratu eta eskuragarriak, hasi I+G fasetik eta harik eta industrian aplikatzeko teknologiak eta soluzioak garatu arte.
- 2. erronka. Industria adimenduna sustatzea, fabrikazioan elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak txertatuta, balio-kateak bilduta eta balio erantsi handiko produktuak eta zerbitzuak garatuta.
- 3. erronka. Elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera sustatzea, enpresa, negozio-eredu eta merkatura iristeko modu berriak sortzeko, handitzeko eta sendotzeko.

2018KO JARDUKETA PLANA

Informazioaren Gizartearen Sailak hainbat ekimen kudeatzen ditu, enpresen artean elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera sustatzera bideratuak.

- **Industria Digitala programa.** Elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologia aurreratu eta eskuragarriak industria-sektorearen esku ipintzea, haien helburua izanik «elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak manufakturaren alorreko ETE industrialetan sartzea».
- **Basque Industry 4.0 programa.** Industria adimenduna sustatzea, fabrikazioan elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak (EIKT) bilduta, balio-kateak osatuta eta balio erantsi handiko produktuak eta zerbitzuak garatuta; haien helburua izango da «ikerketa industrialeko eta garapen esperimendaleko proiektuak sustatzea, teknologia-transferentzia "hornitzaile teknologikoetatik" manufaktura-enpresa industrialetara bidera dadin fabrikazio aurreratura aplikatutako EIKTen esparruan, demostrazio-efektua lortzeko eta, hortaz, EIKTen alorreko I+Gko proiektuen emaitzak merkatura transferitzeko prozesua bizkortzeko».
- **Industria Zibersegurtasuna programa.** Eusko Jaurlaritzaren DDEIren helburuekin lerrokatuta (Basque Industry 4.0 estrategian eta Euskadi 2020 Agenda Digitalean daude jasota helburu horiek), haxe da programa honen xedea: industria-zibersegurtasuna sustatzea, bereziki «ziberrerasoetatik babesteko sistemen konbergentzia eta integrazioa jorratuko duten proiektuak sustatzea, manufakturaren alorreko industria-enpresetako IT eta OT inguruneetan (Information Technology eta Operational Technology)».

- **PEBA Euskadi. Euskadiko industrialdeetan banda zabala hedatzeko plana.** Haren helburua da NGA sareak (>100 Mb) zabaltzea industrialdeetan eta Internet baliatzeko sareetan gabeziak topatzen diren inguruneetan. 2018an, aurreikusten da babesa ematea «Eremu Zuri» gisa sailkatuta jarraitzen duten industrialdeetan zabaltzeari.
- **Enpresa Digitala zentroak.** Haien helburua elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak sustatzea da, gero eta gehiago bideratuta Industria 4.0 esparrura eta, bide horretan, hainbat jarduera bultzatuta:
